

# HIRUGARREN KABINA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

**ADUANAZAINA:** Berri ona eta txarra daukat zuretzat. Txarra, badakidala zer dagoen zure maletan. Ez lanik hartu hori ukatzen, X izpien bidez ikusi dut. Lau kilo daramazula kalkulatzen dut. Egin duzun lelokeria egin aurretik gure legedia pixka bat ezagutzeko lana hartu izan bazenu, jakingo duzu lau kiloren truke 20 urtera kondenatzen zaituztela. Hogei urte luze benetako infernu batean. Berri ona? Segur aski, pisatze ofizialak hiru kilo daramatzazula esango duela. Bat gutxiago. Beraz, 20 urte beharrean, 15 egokituko zaizkizu. Hamabost urte benetako infernu batean.

Bidezkoa iruditzen zaizu? Niri ez zait iruditzen. Agian oraintxe bertan ez duzu horretaz pentsatu ere egin nahi, baina ziurtatzen dizut ez dela bidezkoa, ez da. "Galera" hauei esker, pisaketako funtzionarioek minutu batean irabazten dute aduanetako funtzionario zintzo batek lanean bizitza oso batean irabazten ez duena. Zu bezalako neska asko ikusi ditut haiek estaltzen. 5 urtegitik. 5 urte ziztrin gutxiago edukitzeagatik. Gutxi al dira, hamabost urteko kartzela-aldia? Negozio txarra da, nik esaten dizut. Nazkatuta nago ikusteaz. Gero denak damutzen zarete, baina malkoak iristen direnerako berandu da. Ustel horiek zuk garraio honekin irabaziko zenuena baino askoz gehiago irabaziko dute minutu batzuetan, eta inolako arriskurik gabe. Haiek negozioaren zati dira, polita. Eta zu beharrezkoa den tentela zara. Dena arriskatu duzu ezertarako. Eta gurpilak biraka jarraitzen du. Zure atzetik beste bat etorriko da, eta beste bat...

Ez negarrik egin, entzun. Berri txarra: konturatu naiz lau kilo daramazula maletan, bai. Baina berri ona ez da lau kilo horiek hirutan geratzea. Berri ona nik bakarrik ikusi dudala da. Nik bakarrik. Eta horrek esan nahi du bigarren aukera bat izango duzula. Bidegabekeria horiei amaiera eman nahi diet. Ustelkeria dena usteltzen ari da. Entzun ondo, zer egingo duzun esango dizut: Malkoak lehortu eta gela honetatik normaltasun osoz aterako zara. Hauxe, pasaportearen ohiko kontrola besterik ez da izan. Ontziratze korridorea hartuko duzu, eta terminaletara iristean geldituko zara. Han, ezkerrean, bainu batzuk daudela ikusiko duzu. Emakumeen komunean sartuko zara. Barruan sei kabina daudela ikusiko duzu. Hirugarrenean sartuko zara. Hirugarrenean, ezkerretik hasita, ez nahastu. Behin barruan, ur-tanga ireki eta barruan, kontu handiz, lau pakete horiek sartuko dituzu. Gero, komunetik aterako zara, zure hegazkin-mostradorera joango zara,

Ele txera  
Hiru liburukiz osatuta



# HIRUGARREN KABINA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

gainerako bidaiariekin hegazkina hartuko duzu, eta ez duzu berriro zapalduko herrialde hau. Ados? Ez negarrik egin. Tira, joan! Ez eskertu. Ez dut zuregatik egiten, ezta niregatik ere: zuzena dena bakarrik egiten dut. Hirugarren kabina, gogoratu, hirugarrena, ez zaitez nahastu.

**OHARRAK: ADUANAZAIN** hori, gorrotatzen dituen funtzionario ustelak bezain ustela da, kontua da, erabiltzen ari den diskurtsoa biktimak aingeru salbatzailetzat har dezan dela. Horregatik, **ADUANAZAIN**a antzezten duen aktoreak oso tonu gozoa hartu beharko du, bateratzailea. Baina biktimari egiten dion mehatxua bizirik mantentzea ere lortu beharko du, hark ematen dizkion jarraibideak betetzen ez baditu. Joko bikoitza da. Filmeko "gaiztoa" da, heroia bera eragiten ari den erorketatik salbatuz; bahitzaile bat da, eta "Stockholm-en sindromea" pizten dabil.

Aktorearen gorputz-hizkuntzak ñabardura horiek guztiak bateratu beharko ditu diskurtsoan zehar: polizia-agintaritzaren zurruntasuna, injustiziaren aurrean amore ematen duen funtzionario zintzoaren ausardia, eta lagundu nahi duen pertsona desinteresatuaren berotasuna eta hurbiltasuna.

Ele txera  
munduarek zabalduz

